



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Atera bideetara”

2020ko urriaren 11
Urteko 28. igandea (A)

Mateo 22, 1-14

Jesus berriro parabola-bidez hitz egiten hasi zitzaion: “Jainkoaren erregetzarekin, bere semearen ezteiak ospatzen zituen erregearekin bezala gertatzen da. Bidali zituen morroiak gonbidatuei dei egitera. Baina haiek ez zuten etorri nahi izan. Berriro beste morroi batzuk bidali zituen, mandatu honekin: ‘Esaiezue gonbidatuei: Hara, gertu daukat bazkaria; hilak ditut zezenak eta zekor gizenduak, dena dago prest. Zatozte ezteietara’. Baina gonbidatuek ez zuten jaramonik egin: bata bere sorora joan zen, bestea bere negoziotara, eta gainerakoek, morroi heldurik, irainez bete eta hil egin zituzten. Sumindu egin zen erregea eta, soldaduak bidaliz, hil egin zituen giza hiltzaile haiek eta su eman herriari. Gero, bere morroi esan zion: ‘Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak’. Atera ziren morroiak bideetara eta aurkituriko guztiak bildu zituzten, on nahiz gaizto. Eztei-gela bazkaltiarrez bete zen. Erregeak, bazkaltiarrek ikustera sartu zenean, eztei-jantzirik gabe zegoen bat ikusi zuen, eta esan zion: ‘Adiskidea, nola sartu zara hemen eztei-jantzirik gabe?’ Hark hitzik ez. Erregeak mahai-zerbitzariari esan zion orduan: ‘Lot ezazue hanka eta esku, eta bota kanpora, ilunpetara. Negarra eta hortz-karraska izango dira han’. Zeren gehiago baitira deituak aukeratuak baino”.

Ezteiak prest daude, baina gonbidatuak ez ziren gai. Zoazte, bada, bidegurutzetara eta deitu ezteietara aurkitu ahala guztiak.

GONBIDAPENA

José Antonio Pagola

Bere parabolak direla medio, Jesus agertuz doa bere ikasleei nola esperimendatzen duen Jainkoa, nola interpretatzen duen bizitza beronen sustrairik sakonenetatik eta nola erantzuten dien gizakiaren enigmarik ezkutueni.

Haren parbolekin harreman biziak izaten haste dena aldatzen hasten da. Zerbait «gertatzen da» gu baitan. Jainkoa ez da guk imajinatzen dugun bezalakoa. Eguneroko bizitza ohikoa baino handiago eta misterioitsuagoa da. Daitekeena da bizitzeko beste horizonte bat ukaitea. Entzun dezagun «**Jaiotordurako Gonbita**» izeneko parabolaren abiapuntua.

Testuaren arabera, seme-alaba guztientzat azkenerako jai bat prestatzen ari da Jainkoa, zeren guztiak nahi baititu ikusi bere ondoan eseririk, mahai baten inguruan, bizi beteaz betiko gozatzen. Jesusek gehienik maite dituenetakoa da irudi hau giza historiaren azkena iradokitzeko.

Jenderi askori fedez aho gozatzea eta bizitzaz gozatzea eragozten dioten Jainko kontrolatzaile eta zorrotzaren hainbat eta hainbat irudi zekenen kontra, Jainkoaren beste esperientzia bat agertu du Jesusek munduan: berarekin anai-arreba arteko jai partekatzerako gonbidatzen gaituen esperientzia, zeinetan joko baitu gailurra gure ahaleginen, antsien eta ametsen punturik onenak.

Jainkoaren gonbit handi hau zabaltzen eman du Jesusek bere bizitza osoa: «**Jaiotordua prest dago. Zatozte**». Mezu honek borobiltzen du Jainkoa hots egiteko Jesusek bizi izan duen biziera. Jesusek ez du predikatzen dotrina bat, Jainkoaren desira esnatzen du. Ez du inor ezertara behartzen, ez hertsatzen. Gonbidatu eta deitu: horra haren jokabidea. Beldurra kendu eta Jainkoaganako konfiantza piztu. Jainkoaren izenean, bekatariek eta jende mespretxatua onartzen ditu mahaian. Guztiengana iritsi behar du haren gonbit honek.

Jainkoaren Misterioa Berri On dela aurkitu beharra dute gaur egungo gizon-emakumeek. Kristauek ikasi beharra dugu Jainkoaren Misterioaz Jesusengan arnastuagoa den hizkeraz hitz egiten; hain zuzen, oker-ulertzeak desegiteko, aurreiritziak argitzeko eta beldurra ezabatzeko; hain juxtu, horrelako asko sartu izan baitu gure artean hizkera erlijioso tamalgarririk batek, azken jairako dena prestatu zain dugun Jainko horrengandik jende askori urruntzera eraginez.

Aldi honetan, erlijioaren izen txarra jende askori Jainkoaren gonbita entzutea galarazten ari den honetan, haren Maitasunaren Misterioaz apaltasunez eta jende guztia errespetatuz hitz egin behar dugu, inor behartu gabe, bizitza ito gabe, gizakiaren bihotzean bizirik jarraitzen duen egiaren eta argiaren desira esnaraziz.

Egia da dei erlijiosoari uko egiten diola gaur egun jende askok; alabaina, Jainkoaren gonbita ez da itzali. Bere bihotz barnean ongiaren, maitasunaren eta zuzentasunaren deia entzuten duten guztiak entzun dezakete hura.